

## **BILBOKO UDALAK GABONETAN HEZKUNTZA IZAERAKO AISIA OSASUNTSUKO 1 700 PLAZA BAINO GEHIAGO ESKAINTZEN DITU 3 ETA 13 URTE ARTEKO ADINGABEENTZAT**

- Bihar, astelehena, azaroak 23, izena emateko epea hasiko da, **Gabongune** programan (3 eta 8 urte artekoentzat), **Gabonkide** programan (9 eta 11 urte bitarteko neskato-mutikoentzat).
- Egun berean, bihar ere, **Gabonetan primeran kirola eginez** programan (6 eta 13 urte bitartekoentzat) izena emateko epea ere zabalduko da. Programa honetan inskribatzeko prozesua hasten da, baina osasun-bilakaera aldekoa bada eta horretarako aukera ematen badu garatuko da. Horrela, ordainketak egoerak garatzeko aukera ematen badu bakarrik egingo dira.
- Helburua da adingabeei alternatiba dibertigarri bat eskaintzea, eta lana eta familia-bizimodua uztartzen laguntzea Gabonetako eskola-oporren garaian.

(*Bilbo, 2020ko azaroaren 22a*).- Bilboko Udalak abian jarri ditu, aurten ere, “Gabongune”, “Gabonkide” eta “Gabonetan primeran kirola eginez” izeneko programak: 1 700 plaza baino gehiago eskainiko ditu 3 eta 13 urte bitarteko neskato-mutikoentzat. **Hiru programetan izena emateko epea bihar, astelehena (azaroak 23), hasiko da.**

Gabonetako programa horien bidez, adingabeei aukera ematen zaie beste batzuekin harremanetan sartzeko, ondo pasatu eta kirola egiten duten bitartean. Bestek beste, ohitura osasuntsuak, talde-lana eta adiskidetasuna sustatzen dira. Horrez gain, programa hauekin, Udalak lana eta familia-bizimodua errazago eta hobeto uztartzen lagundu nahi du Gabonetako oporraldian.

### **GABONGUNE ETA GABONKIDE**

**Gabongune** programa 3 eta 8 urte bitarteko umeentzat da (2012-2017), eta **Gabonkide** programa 9 eta 11 urte arteko neskato-mutikoentzat (2009-2011).

Aurre-inskripzioa bihartik aurrera egin daiteke, [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) web-orrian edo udalaren informazio-telefonoan: 010 / 944 010 010.

Plazen zozketa azaroaren 27an, barikua, egingo da. Egun berean, arratsaldean, zozketaren emaitza kontsultatu ahalko da aurre-inskripzioa egiten den leku berberetan.

Programetan plaza suertatu zaien familiek azaroaren 30etik abenduaren 4ra arte (barikua) eman dezakete izena. Izena ematearekin batera, adierazi duten emailera bidaliko zaien kontu zenbakian sartu beharko dute dirua.

Egun solteetarako eman daiteke izena (gehienez 4 egunetarako), edo aste osoetarako (4 eguneko bakoitza). Bi programa horiek abenduaren 28aren eta urtarrilaren 8aren arteko

lan-egunetan egingo dira. Horrela, eskolako opor-egun guztiak estali gura ditugu, laneko eta familiako denbora kontziliatuz.

Programak Deustuko, Castañoseko, Otxarkoagako, Begoñako, Alde Zaharreko, Abandoko, Iralako, Basurtuko eta Zorrotzako udaltegietan egingo dira, 9:00etatik 14:00etara. **Programatutako jarduerarik gehienak espazio irekietan egingo dira: Europa parkea, Areatza, Casilda Iturrizar parkea eta Olabeagako pasealekua, besteak beste.**

Hauek dira programen prezioak, bi asteetako baterako: 16,40 euro, arrunta; 12,30 euro familia ugariarentzat; eta 6 euro Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenentzat. Familiak egun solteak aukeratzen baditu (gehienez 4 egun), prezioa 6 eurokoa izango da egun bakoitzeko.

**Programak aldatu eta/edo eten daitezke, baldin eta osasun-egoerak edo neurriek hala exijitzen badute.**

## **GABONETAN PRIMERAN KIROLA EGINEZ**

**Bilbao Kirolak-en *Gabonetan primeran kirola eginez*** abenduaren 21ean, 22an, 23an, 28an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 4an eta 5ean egingo da, Txurdinaga, Deustu eta San Ignazio auzoetako udal kiroldegietan. **Programa hau osasun-bilakaera aldekoa bada eta horretarako aukera ematen badu garatuko da.**

Jarduerak, betiere, 9:00etatik 14:00etara izango dira, nahiz eta kiroldegietara 8:30etik aurrera sartzeko modua izango den, eta irtetea 14:30era arte. Nahitaezkoa izango da kiroletarako arropa eta oinetakoak, bainu-jantzia, txankletak, toalla eta txanoa ekartzea. Jarduera guztiak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

Abonatuentzat, azaroaren 23tik aurrera (astelehena) hasiko da izena emateko epea, eta abonatuak ez direnentzat, azaroaren 26tik aurrera (eguna). Izena ematea, bestalde, [Bilbao Kirolak](#)-en web-orriaren bidez online egingo ahal da, edo kiroldegietako salmentarako makinaren bidez.

**Ordainketa egiteko modu bakarra helbideratutakoa izango da, eta ordainleta eraginkorra izango da osasun-kokapenak hura garatzeko aukera ematen badu.**

Dibertsitate funtzionala duten adingabeentzat gordetako plazak (48 plaza San Ignazioko kiroldegian) GAITUZSPORT entitatearen bidez -622 022 063– erreserbatuko dira.

Jardueren prezioa 10,40 eurokoa da eguneko, abonatuentzat, eta 12,50 euro eguneko, abonatu ez direnentzat. Plazak erreserbatzeko aukera izango da: egun baterako, hainbat egunetarako edo egun guztietarako.

**Programa hauetako jarduerak garatzean, unean uneko higiene- eta osasun-neurri guztiak beteko dira.**

## EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO OFERTA MÁS DE 1.700 PLAZAS DE OCIO EDUCATIVO Y SALUDABLE PARA MENORES DE 3 A 13 AÑOS EN NAVIDAD

- Mañana lunes, 23 de noviembre, se abrirá el plazo de inscripción para los programas Gabongune, para menores de 3 a 8 años, y Gabonkide, para chicos y chicas de 9 a 11 años.
- También mañana se abrirá el plazo de solicitud de plaza para *Gabonetan primeran kirola eginez*, dirigido a quienes tienen entre 6 y 13 años. Se inicia el proceso de inscripción de este programa que se desarrollará si la evolución sanitaria es favorable y lo permite. Así, los cobros se realizarán si finalmente las actividades se pueden celebrar.
- El objetivo es ofrecer a las y los menores una alternativa divertida, así como contribuir a la conciliación laboral y familiar durante las vacaciones escolares de Navidad.

(Bilbao, 22 de noviembre 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao pone en marcha, un año más, sus programas de ocio educativo y saludable “Gabongune”, “Gabonkide” y “Navidad Deportiva Navidad Divertida” con una oferta de más de 1.700 plazas para niños, niñas y jóvenes de 3 a 13 años. **El plazo de inscripción para cualquiera de estos tres programas comenzará mañana lunes, 23 de noviembre.**

El objetivo es ofrecer a las y los menores un espacio en el de relación, en el que se divierten aprendiendo y practicando deporte. Se trata de programas que fomentan los hábitos de vida saludables, el trabajo en equipo o el compañerismo, entre otros. Además, con estos programas el Consistorio contribuye a facilitar y mejorar la conciliación laboral y familiar durante las vacaciones escolares de Navidad.

### **GABONGUNE Y GABONKIDE**

**Gabongune oferta se dirige** a niñas y niños de entre 3 y 8 años (2012-2017) y **Gabonkide** a chicas y chicos con edades comprendidas entre los 9 a 11 años (2009-2011).

La preinscripción puede realizarse a partir de mañana en [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) o en el teléfono de información municipal 010 / 944 010 010.

El sorteo de las plazas se realizará el viernes 27 de noviembre y ese mismo día por la tarde se puede consultar el resultado en los mismos puntos en los que se realiza la preinscripción.

Las familias a las que les haya tocado plaza en los programas podrán formalizar la inscripción del **lunes 30 de noviembre al viernes 4 de diciembre** con el ingreso de la cantidad indicada en el número de cuenta que les llegará al mail, que hayan indicado en la inscripción.

Existe la posibilidad, **de inscribirse por días sueltos** -hasta un máximo de 4-, o **por semanas completas** -ambas de 4 días-. Estos dos programas se llevarán a cabo los días lectivos entre el **28 de diciembre y el 8 de enero**, en un intento por cubrir todos los días de vacaciones escolares impulsando la conciliación de la vida laboral familiar.

Los programas se desarrollarán en horario de 09:00 a 14:00 en los Centros Municipales de Distrito de **Deusto, Castaños, Otxarkoaga, Begoña, Casco Viejo, Abando, Irala, Basurto y Zorrotza**. **El mayor número de actividades programadas se van a realizar en espacios abiertos: en el parque Europa, Arenal, parque de Doña Casilda o el paseo Olabeaga, entre otros.**

El precio para estos programas es de 16,40 euros, -12,30 euros para las familias numerosas y 6 euros para las perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresos- si se elige una de las dos semanas. Si la familia prefiere escoger días sueltos -hasta un máximo de 4 días-, el precio será de 6 € por día.

**Estos dos programas podrán ser modificados y/o suspendidos en caso de que la situación sanitaria o las medidas así lo exijan.**

### **“NAVIDAD DEPORTIVA, NAVIDAD DIVERTIDA”**

El Ayuntamiento de Bilbao, a través de Bilbao Kirolak, inicia el proceso para poner en marcha “Navidad Deportiva Navidad Divertida”, que **se desarrollará si la situación sanitaria evoluciona favorablemente y lo permite.**

En caso de celebrarse, se desarrollará los días **21, 22, 23, 28, 29, 30 de diciembre** y los días **4 y 5 de enero** en los Polideportivos Municipales de **Txurdinaga, Deusto, y San Inazio**.

Las actividades, en todos los casos tendrán un horario de **9:00 a 14:00 horas**, aunque la entrada a los recintos deportivos se podrá realizar a partir de las **8:30 horas** y la salida **hasta las 14:30 horas**. Es necesario llevar ropa y calzado deportivo, bañador, chancletas, toalla y gorro. Todas las actividades se realizarán en euskera y castellano.

El plazo de inscripción para las **personas abonadas comenzará el lunes 23 de noviembre**, y el **26 de noviembre, jueves, para quienes no lo sean**. Las inscripciones podrán realizarse *on line* a través de la página web de [Bilbao Kirolak](#) y en las **máquinas de venta de todos los Polideportivos Municipales**.

**La única forma de pago será la domiciliada y el cobro se hará efectivo si la situación sanitaria permite su desarrollo.**

La reserva de las plazas dirigidas a menores con diversidad funcional, 48 en el Polideportivo de San Inazio, se hará a través de **GAITUZSPORT (622 022 063)**.

El precio de las actividades será de 10,40 euros al día para las personas abonadas y 12,50 euros para personas no abonadas. Se pueden reservar plazas para uno, varios o todos los días.

**En caso de realizarse, todas las actividades de estos programas se desarrollarán respetando y siguiendo todas las medidas higienico- sanitarias vigentes en el momento de su celebración.**